

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### URKABUSTAIZKO UDALA

#### Udal tasak arautzen dituzten ordenantzen aldaketaren hasierako onarpena

Ondoren zehazten diren udal tasak arautzen dituzten ordenantzen aldaketen hasierako onarpena:

Udalekuak jarduera dela eta ordaindu beharreko tasak.

Udal igerilekuak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasak.

Udal kiroldegiko instalazioak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasak.

Jolastokiko jarduerarengatik ordaindu beharreko tasak.

Kultur etxeko instalazioak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasak.

Musika-eskola publikoan egindako jarduerengatik ordaindu beharreko tasak.

Udal osoko bilkurak, 2021eko ekainaren 29an egindako ohiko saioan, hasierako onarpena eman zien ondorengo tasak arautzen dituzten ordenantzen aldaketei: Udalekuak jarduera dela eta ordaindu beharreko tasak; udal igerilekuak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasak, udal kiroldegiko instalazioak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasak, jolastokiko jarduerarengatik ordaindu beharreko tasak, kultur etxeko instalazioak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasak, musika-eskola publikoan egindako jarduerengatik ordaindu beharreko tasak. Akordio hori, bere aurrekari guztiekin, Udaletxeko Idazkaritzan egongo da ikusgai, hogeitamar egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn iragartzen den egunaren hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe horren barruan interesdunek espedientea aztertu ahal izango dute, eta egoki ikusten dituzten erreklamazioak aurkeztu.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, ordenantza aldatzeko akordioa behin betiko onartutzat joko da.

Izarran, 2021eko irailaren 30ean

*Alkatea*

*XABIER ALVAREZ DE ARCAYA FERNÁNDEZ DE LANDA*